

# ARRASATEKO TOPONIMIA

## (edo IZEN-IZANaren sintonia)

Jose Luis Ormaetxea

Artikulu hau 1992ko abenduaren lehenean Arrasaten emandako hitzaldi baten testua da. Hitzaldia den neurrian, eta edonork ulertzeko asmotan egina gainera, dibulgaziozko maila duela esan dezakegu.

Hasieran toponimia eta bere balioari buruzko kontzeptu orokor batzuk eman ondoren, Arrasateko toponimiaz egindako lana aurkezten da. Lan hori, funtsean, Arrasateko toponimoen bilketa-lana izan da eta hemen hori nola egin den azaltzen da. Hortaz: lanaren helburuak zeintzuk izan diren, erabilitako metodologia bai ahozko-bilketari eta bai idatzizkoari dagokienean, toponimoen normalizazioaren gaineko irizpide eta gorabeherak, e.a. Bukaeran, etimologiaz berba bi eta beste hainbeste adibide, eta ondorioak.

---

## Sarrera: toponimia eta bere balioa

---

Toponimia toponimoez ari den hizkuntz disziplina bat da. Eta zer da toponimo bat? Galdera honen erantzuna, seguruenik, hemen zaudeten guztiok edo gehienok izango duzue buruan; baina kaleko jende askok, agian, ez luke jakingo hitz horren atzean zer dagoen esaten. Bai, ordea, berba hori hitzez hitz itzuliko bagenu euskarara: leku-izena (hots, grekeratik: TOPOS = leku eta ONOMA=izena)

TOPONIMIA hitzak, zehatz berba ginez, bi adiera izan ohi ditu:

- 1) Leku-izenen jatorriaz eta etimologiaz arduratzen den zientzia (edo linguistika zientziaren zatia)
- 2) Lurralde edo garai jakin bateko leku-izenen multzoari ere toponimia deitzen zaio. Hau da gure kasua: guk *Arrasateko toponimia* diogunean, Arrasaten dauden leku-izenez ari gara.

TOPONIMO berbara itzuliz, ezer baino lehen esan behar dena da toponimoa edo leku-izena izen propioa edo berezia dela, gure idazkeran letra larriz edo maiuskulaz idatzi ohi duguna. Esaterako,

"iturri gorri bat jan *Gesalibarren*"

esango banio neska bati, "iturri" izan arrunta eta "gorri" adjetiboa letra xehez edo minuskulaz idatziko nituzke; aitzitik,

"juen ai uretan *Iturrigorrire*"

esaten badiot, *Iturrigorri* hori toponimo edo leku-izen bat izanik, orduan *Iturrigorri* hitz konposatu eta berezia izango da eta maiuskulaz idatziko dut. Izen arrunta eta bereziaren artean, hortaz, desberdintasun nabarmen bat dugu: izan bereziak pertsona edo gauza espezifikoei dagozkie eta izen arrunta, aldiz, kontzeptu orokorrei. Eta, gainera, funtzio desberdina dute: izen arruntak esanahizko unitateak diren bitartean, izen berezien funtzioa identifikatzea da.

Baina argi dago edozein izen berezik izen arrunt batekin duela zerikusia. *Iturrigorri* aipatuak *Atxabalpe* futbol-zelaiaren ondoan dagoen iturri batekin du zerikusia. *Udala* auzoko *Leixardi* leku-izenak "leixar, lizar" zuhaitzarekin du zerikusia, nahiz eta gaur egun leku horretan "leixar"-a baino gehiago artea izan.

Beste batzuetan, alabaina, denboraren joanak eragindako aldaketak eta maiz deformazio fonetikoak oztopatu egiten digu toponimoak izendatzen duen objektuarekin duen lotura ikustea.

Ad. *Garagartzan* badago baserri bat *Dixana* deitzen dutena. Horrela deitzen dutenek ere ziur asko ez dute jakingo horren atzean *Diegoena* izkutatzen dela, hots: DIEGO izeneko baten etxea.

*Bioso* izenez ezagutzen da Bedoñako beste baserri bat. Idatziz *Bidasoro* agertzen dela jakingo ez bagenu, zail genuke *Biosok* zer adierazi gura duen antzematen. e.a.

Bestalde, esan dezagun zerbait toponimiaren balioaz.

Toponimoak hitzak direnez, hizkuntzarekin dute zerikusirik behinena eta arlo horretan izango du toponimiak baliorik nabarmenena. Gauzatxo batzuk aipatzeko:

**1) Hizkuntza baten lehenaren berri ematen digu toponimiak.**

Toponimia oso garrantzitsu gerta daiteke euskara galdua den lekuetan. Esaterako, garai batean Errioxan mintzaten zen euskara nolakoa zen jakiteko hango toponimia ikertzea derrigorrezko zaigu. Eta egun euskara hitz egiten den tokietan ere inportantea da toponimia, lehenagoko hizkeraren berri eman diezagukeelako.

Ad. *Garagartza*-n bada *Axkibel* deituriko toponimo bat. Hitz honetan ATX eta GIBEL ikusten baditugu, argi dago GIBEL hori ezin dugula gure gorputzeko organo gorriskarekin identifikatu. Hemen GIBEL horren esanahia egun ekialdeko hizkeretan ematen diotena bide da, alegia: atzekaldea (fr. la partie postérieure; ETXE GIBELA = le derrière de la maison, etxe atzekaldea, etxea ostea). Gure *Axkibel* hau eta Hondarribia ondoko *Jaizkibel* hura gauza bera ei dira, beraz.

**2) Hizkuntza horren aldaki dialektalen ezaugarriak ematen dizkigu toponimiak.** Denok dakigu Arrasaten egiten dugun euskara, ezer izatekotan, bizkaiera dela. Toponimiak ere hala erakus-

ten du: *Udalatx* ("esta notable y grande peña (...) se llama *Udalacha*" esaten digu Garibayk 1571an) (bide batez, nik neuk idatzirako ere *Udalatx* forma nahiago dut Arrasate Press-en ia beti agertzen den *Udalaitz* baino); *Barrenasolo*; *Basobaltz*; *Bidebarrieta*; *Solozar*; *Uriarte*...

**3) Euskararen hitz-elkarketa eta hitz-eratorpenaren legeen berri ere ematen digu.** Ad.

*Abeletxe* <abere + etxe; *Astabide* <asto + bide; *Auza-sagasti* <auzo + sagasti (baina *Auzobaso*); *Axmendi* <atx + mendi; *Lubarri* <lur + barri; *Sagastia* <sagar + -ti.

Bestalde, toponimia ia gehienetan **inguruaren deskribapena** da, tokiaren era askotako informazioa eskaintzen digularik. Alegia:

1) Abeltzantza, lurgintza, industria, komunikabideen berri: abereak (*Astabide*, *Usaetxe*), soloak (*Abasolo*), errotak (*Errotaetxe*), olak (*Olakorta*), bideak (*Iturribide*), etxeak (*Etxazuri*)...

2) Flora: zuhaitzak (*Madariaga*, *Intxaurrondo*, *Sagastitxo*, *Pagobakarra*...), landareak (*Garagartza*, *Itsasondo*...)

3) Hidrografia: errekek (*Zapataerreka*), iturriak (*Bostiturrieta*), osinak (*Sugeosin*)...

4) Orografia: arroak (*Urretxu-arro*), haranak (*Aranguren*), ibarrak (*Gesalibar*), mendiak (*Kallamendi*), gainak (*Lakaingain*), e.a.

Toponimiak, **historiarekin ere badu zerikusia**, eta handia gainera. Ez bakarrik Historia inportantearekin, ekintza edo pertsonaia ospetsuen historiarekin, baizik eta baita ere historia xumearekin, herrien eta auzoen historiarekin. **Ola** berbaz osaturiko toponimoak mordo dira gure inguruan (*Olabe, Olaetxe, Olakorta, Olalde, Olaoste, Olanan, Olarte, Olatxo, Olazar, Oleaga...*), horrek adierazten duelarik burdinazko lantegiek gure herrian izan duten pisua. *Sanjurgi* baserri-izenak antzinako ermita baten existentzia gogorarazten digu, eta berdintsu *San Vicente* (*Sanbísente* ebakita) deritzan muinoarenak. Gerra aurrean *Ibarreta Gainekoa* baserriaren ondoan ei zegoen iturriari *Bañez* deitzen zioten, XV. mendean leku horretan hil zuten Martin Bañez de Artazubiaga gogora ekarriz. Musakolatik Zubillagarako galtzada-bidea *Erregebide* izenaz ezagutua izan da, izen horrek 1374ean Gaztelako Enrike II.a erregea zetorrela eta arrasatearrek egindako bide berria oiroitarazten digularik. Etabar, etabar.

---

### **Arrasateko toponimia**

---

Hemendik aurrera, beraz, Arrasateko toponimiaren bilketa-lana zelan egin dudaz azaltzen saiatuko naiz. Esan beharra dago bilketa hau Arrasateko Udalak emandako beka baten ondorio dela eta 1990eko azaroan hasi eta aurtengo udaberrian bukatu nuela.

#### ***Aztertutako eremua***

Lan honen azterketa-eremua Arrasateko udalerrria izan da. Heda-

durari dagokionez, ez oso handia ez oso txikia, ia 31 km<sup>2</sup>.

Auzoak kontutan hartu ditut, izan ere auzoka agertzen bait dira toponimoak lanean, baina betiko auzoak, ez azken urteetan sorturikoak. Beste modu batean esateko, azken asteetan Arrasate Press-en agertzen ari diren bederatzi baserri-auzoak, alegia: garai batean UGARAN bailara osatzen zuten elizateak, 1353 urtean Mondragoeri atxiki zitzaizkionak: *Gesalibar, Garagartza, Uribarri* eta *Udala*; hirigunea inguratzen duten auzategiak: *San Andres, Meatzerreka, Zaldibar* eta *Musakola*; eta, azkenik, 1966 arte Aretxabaletako auzo izan zen eta ordudanik Arrasatekoa den *Bedoña* auzoa.

Bestalde, Arrasateko hirigunea edo hiri barrua ere kontutan hartu dut, baina ahozko bilketa-lana egin gabe gelditu da. Batez ere baserri-ingurura mugatu naizela esan daiteke.

Eta puntu honekin bukatzeko, ohartxo bat. Hasieran bestela uste banuen ere, auzoen arteko mugak, Arrasateri dagokionean behintzat, ez daude oso garbi. Badakigu baserri bat auzo honetakoa edo bestekoa dela, baina auzoen arteko muga zehatzik ez dago, normalean ez baitago auzoak banatuko dituen errekarik edo ageriko mugarririk. Horregatik, batzuetan zalantzak izan ditut toponimoren bat auzo bati ala besteri atxikitzerakoan.

#### ***Helburuak***

Bekaren oinarrietan, helburua "Arrasateko toponimia bildu, sailkatu,

kokatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egitea" zela esaten zen. Bistan da aditz guzti horiek ez ditudala kontutan hartu. Lan honen **helburu nagusia** Arrasateko leku-izenen bilketa izan da. Bi eratako bilketa: *historikoa*, idatzizko dokumentuetatik eskuratu dena, eta *gaurkoa*, bertako lekuko laguntzarekin jaso ahal izan dudana.

Bi bide horietatik jasotako toponimoen finkapena edo normalizazioa ere alde zuzenetik jarritako helburua zen. Kartografiarako, hau da, mapetarako normalizazio-proposamena, azkenean, Deustuko DEIKER institutuaren eskutik gelditu da. (Parentesi bat eginez, esan behar dut ez dakidala zertan dagoen kontu hau. Gaur hasten dugun hil honetan beteko da urtea ahozko bilketari zegokiona (mapak, fitxak, zinta grabatuak...) DEIKER-i entregatu nionetik, eta ez dakit ezer egin duten material horrekin. Esan esan zidaten deituko nindutela nik ahoz jasotako toponimo horiek normalizatzerakoan, baina nik ez dut oraindik deirik jaso). Dena dela, eta parentesia itxi ondoren, nik lan honetan toponimo bakoitzaren behin- behineko forma normalizatua sartu dut, hala egitea egoki ikusi dudalako.

Bestalde, eta lana "bukatu" ondoren, kezka batekin geratu naiz. Ahozko bilketa zein idatzizkoa, biak egiteak lanaren sakontasunari mugak jarri dizkio, halabeharrez. Eta agian hobeto zatekeen bi bilketa-eretatik batera mugatzea, ahozkoa hain zuzen, honek baitu galtzeko arriskurik handiena. Gaur egun, zorionez, artxiboak

hobeto zainduak daude eta lan horri geroago ere hel dakioko.

### *Metodologia*

Esan beharrik ez dago toponimi bilketak egiteko oinarri metodologikoak ezagutu behar direla, eta badira euskalarien artean lan horretan adituak izan direnak eta egun direnak, baina hemen ez naiz hasiko izenak aipatzen.

Bestalde, ni lan hau egiten hasi orduko baziren Gipuzkoan bertan zenbait udalen ekimenez egindako azterketa toponimikoak. Konkretuki Andoainen eta Usurbilen izan nintzen antzerako lanak eginak zirenen esperientzia jasotzen. Gainera, lankide eta lagun dudana Patxi Salaberri aramaioarrak ere aholku ugari eta onak eman dizkit. Patxik *Legutioko Udalbarrutiko Toponimia* deituriko lana burutu zuen duela zenbait urte.

Idatzizko iturriak aztertzen zenbait hilabete neramalarik, lehen aipatu dudana Deustuko DEIKER institutuak Gipuzkoako eta Arabako toponimia kartografiatzeko ardura hartzen zuela jakin genuen. Hala, eta ahozko toponimi bilketari zegokionean, DEIKER-ek aurrera eroan asmo duen proiektuarekin bat egiteko eta metodologia dibergente gehiegirik sor ez zedin, haien irizpideei egokitu gintzaizkien.

Eta esan beharreko hauek esan ondoren, zehatz ditzagun erabili ditugun irizpide metodologikoak.

## 1. Iturri idatziak

Dokumentazio idatziari dagokionez, esan behar da material ugari dagoela eta aukera egin beharrean aurkitu garela.

Arrasateko Udal Artxiboa nahikoa aberatsa da, eta hango paper zahar artean ehundaka ordu sartu ditudan arren, aztertu barik geratu diren dokumentuak ez dira gutxi. Alabaina, toponimiaren azterketarako dokumenturik interesgarrienak (zedarrizaketak, erroldak, e.a.) aztertu ditudalakoan nago.

Arrasateko Udal Artxiboaz gain, beste artxibo hauetako zenbait dokumentu ere arakatu ditut:

- \* Gipuzkoako Foru-Diputazioko Artxiboa (1945eko Amilaramenduak).
- \* Oñatin den Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoa (hipoteka-liburu garrantzitsuenak)
- \* Gipuzkoako baserri-izenetarako funtsezkotzat jotzen den *Nomenclator de la provincia de Guipúzcoa* (1857-64) ere erabili dugu.
- \* Zenbait iturri bibliografiko ere baliagarri izan zaigu (besteren artean: Jose LETONA eta Juan LEIBAR-en lanak, Justo de JAUREGUI-ARRANBURUren *Anteiglesia de Garagarza*, GARIBAY, Juan Carlos GUERRA, MITXELENAREN *Textos Arcaicos Vascos*, e.a.

Dokumentuetan aurkitu ditugun izenak (eta haiei buruzko daturik interesgarrienak) fitxetan jaso dira,

leku-izen bakoitzari fitxa bana eskainiz.

## 2. Ahozko bilketa

Lehenago esandako moduan, ahozko bilketarako DEIKER-ek proposatutako metodologia jarraitu dugu. Labur-labur esanda:

- 1) Auzo bakoitzean hiruzpalau informatzailereren laguntza izan dugu.
- 2) Ahal izan denean inkesta *in situ* egin dugu, eta gutxiagotan etxean edo bulegoren batean.
- 3) Erabilitako materiala:
  - a) Kaseta eta zintak, elkarrikeriketa guztiak grabatu ez baditugu ere.
  - b) Koaderno batean toponimo guztiak eta haien gaineko datu interesgarrienak apuntatu ditugu.
  - c) mapak: Gipuzkoako Foru-Diputazioko 1: 5.000 eskalakoak. Alde batetik, gainean, mapa topografiko gardena, eta, bestetik, azpian, hari zegokion ortofotoa. Lehenengo mapa gardenean lapitzez idatzi ditugu izenak (ahal zenean hedadura ere seinalatuz), eta bukaeran ortofotora aldatu ditugu.
  - d) Gainera, DEIKER-ek emandako eskala desberdinetan argitaratuak diren beste zenbait mapaz ere baliatu gara.

Ahozko bilketari dagokiona (mapak, zintak, fitxak...) DEIKER-i entregatu genion 1991ko abenduan. Aldi berean, haren kopia bat Arrasateko udaletxean utzi genuen.

Bilketa lan honetan auzo eta baserri inguruko toponimiari ipini diogu arreta nagusia, hiri barrukoa egiteke geratu delarik.

Aldez aurretik edo aldi berean idatzizko iturrietatik jasoriko informazioa izateak eta ingurunea ezagutzeak izugarri laguntzen dute ahozko bilketari ekiterakoan. Izan ere, ahoz izenak sarritan itxuraldatuak ematen ditugu, aldaketa fonetikoak eta kontrakzioak direla bide.

Azkenik, azentuaz bi berba. Azentua ez dut gehienetan seinalatu, toponimoak eskuarki oso garbi eta sistematikoki mendebaldeko ereduaren arabera (hots, ezkerretik hasi eta bigarrenean eta eskuinetik hasi eta lehenengoan) ebakitzen direlako Arrasaten. Hasierako harridura, erdarak eragindako *Kaparraméñdi* ebakidurak sortarazia, esaterako, laster ezabatu zen euskal testuinguruan *Kaparramendí* zela jakitean.

### *Normalizazioa*

Toponimoen finkapena edo normalizazioa zen hasieran beka honen helburuetariko bat. Gerora nire esku utzi zen lan hori egitea ala ez. Gainera, DEIKER-en gain gelditzen zen mapetan bilduriko Arrasateko toki-izenen normalizaziorako proposamena.

Hala ere, eta ikusirik iturri idatzietatik ahoz jaso gabeko toponimo asko batuak nituela, bidezko ikusi nuen toponimo bakoitzari sarrera bat eskaintzea, eta saiatu naiz sarrera horretan ahalik eta forma norma-

lizaturik egokiena proposatzen. Baina proposamena besterik ez da, eta sarri askotan seguruenik diskutigarria.

Normalizazio-kontu hau oso arazo korapilatsua da eta luze jo lezakeena. Baina hemen nik laburra izan beharra daukat. Horra, beraz, hiruzpalau puntutan egoki jo ditudan irizpideak:

- \* Objetu geografiko batek (demagun "baserri" batek) izen bat baino gehiago dituenean, denei eman diegu sarrera bana, oharren bidez argitasunak emanez. Ad. *San Andres* auzoko *Takolo* famatuaren jatorrizko izena *Bedoñabe Etxebarri* da. Bi sarrera, beraz.
- \* Kontu hauetan nahikoa kontserbadore naizenez, forma normalizaturako eskuarki dokumentazioan jasotako formetan oinarritu naiz.

Esaterako:

<u>Ahoz</u>	<u>Idatziz</u>
<i>Maixa, Mara(g)ixa...</i>	MADARIAGA
<i>Uxarte</i>	URIARTE
<i>Seleta</i>	ZELAIETA
<i>Oseta</i>	OZAETA
<i>Mietza</i>	MEATZAGA

- \* Batzuetan erabakia hartzea ez da erraza gertatzen, historikoaren eta gaurkoaren alde handiagatik. Beti jartzen dudana adibidea emango dizuet. Gure auzoan (*Gesalibar*-en, edo *Santa Ageda*-n, gurago baduzue) bada baserri bat bertakook *Saatxo* deitzen duguna. Paper zaharretan begiratzen badugu, XVII, XVIII zein XIX.

mendeetan beti azaltzen zaigu *Sagasticho*. Eboluzioa handia izan da, argi denez. Mende honen erditik aurrera, aldiz, *Saracho*, *Zaracho*, *Saratxo* formak ikus daitezke idatzita, ziurrenik ahozko formara hurbildu nahian. Udaletxeak azken forma hauek hartu ditu aintzat baserriaren aurrekaldean plaka ipintzerakoan. Eta nere ustez, gehiago nahastu du kontua. *Saratxo* hori Araban ere agertzen zaigu, leku-izen zein deitura gisa. Baina izen horren etimologia **sarats** (Arrasaten **saatz**) edo **sahats** berban ei dago eta hori beste zuhaitz mota bat da. Berba horrek balioko luke beste baserri baten izena, *Garagartzia*-koa hau, jendeak *Saatz* deitzen duena, eta nik *Saratsaga* sarrera eman diodana, esplikatzeko, baina ez, inola ere, **sagarra** ordezkatzeko.

Eta nola normalizatu *Gesalibar*-ko baserri horren izena? Ba, nik, behin-behinean, *Sagastitxo* (*Saatxo*) ipiniko nuke, eta ezelan bere ez, berriz diot, *Saratxo*.

- \* Lekukotasun bakarra ahozkoa denean, normalizazio-lanaren berezko zailtasuna areagotu egiten da. Kasu hauetan hau izan da gure jokaera: toponimiaren osagaiak argiak direnean forma osoak berreskuratu, baina ziur ez gaudenean dauden bezala eman, ortografia batura egokituz.

- \* Ortografiari dagokionean, Euskaltzaindiak emandako arauak errespetatzen saiatu gara.

- \* Euskalki mailako berezitasunak errespetatu egin ditugu toponimoa normalizatzerakoan. Esate baterako:

**barri:** *Etxebarri, Uribarri*

**baltz:** *Urbaltz, Basobaltz*

**atx:** *Udalatx, Atxabal*

**h->0:** *Arangoiti, Arriandi...*

Puntu honekin amaitzeko, esan gura nuke komunikabideetan ez dela behar besteko arretarik ipintzen toponimoen idazkerari dagokionez. Piskanaka hobetzen goazen inpresioa dut, baina oraindik egiten da okerrik.

Hau dela eta, urte "malapartau" honetako *Arrasate Press*-ak aztertzen aritu naiz. Oro har toponimoak nahikoa ondo idazten badira ere, batzuetan izen beraren forma desberdinak irakur daitezke, eta bestetan idazkera eztabaidagarriak antzeman izan ditut. Baina, arren, inork ez beza kritikatzeko hau txartzat hartu, bidenabar esateko *Arrasate Press*-zale amorratua bainauzue.

Horra, bada, etsenplu batzuk:

- *Meatzerreka* (135); *Mietzerreka* (136); *Meatz Erreka* (138)
- *Uherkape* (136); *Uharkape* (137); biak artikulatu berean (146, 166); (dokumentatu ditudan forma bakarrak UGARCAPE eta U-ARCAPE izan dira, biak 1789 urtean)
- *Santamaina* (formarik erabili-ena) (136, 153); *Santamarina*



- (145); *Santa Marina* (152, 161); *Santamaña* (163)
- *Kontzezino* kalea (166); *Kontzeziño* (167)); *Kontzesiño* (167)
  - *Udalaitz*, *Udalaizpetik* (*Udalaitzpeko* (167) betik (behin bakarrik *Udalatx* (170) (herriko euskaran idatziriko **Baserriz baserri** sailean))

### ***Lanaren aurkezpena***

Irizpide praktiko bategatik toponimoen zerrenda auzoka eta alfabetikoki ematea erabaki dugu, inon kokatzerik izan ez ditugunak aparteko multzo batean doazelarik. Azkenean toponimo guztien zerrenda alfabetikoa doa.

Lanaren corpusa honela aurkezten dugu:

- 1) Goian izenburua, forma normalizatu, beltzez.
- 2) Ondoren dokumentazio historikoan jasotako aldakiak. Aldaki bakoitzeko generikoa (dagoenean) eta segidan urtea eta dokumentua. Etxe edo baserrien kasuan, XVI. mendeko edo lehenagoko deiturak ere jaso ditugu.
- 3) Gero letra makurrean ahoz jasotako aldakiak, informatzaileraren kodearekin eta mapetan duten kokapena azalduz.
- 4) Beharrezko ikusi denean, oharrak ipini dira.

### ***Etimologia***

Gauza jakina da euskaldunak oso emanak gabela etimologi kontuetara, hau da, euskal hitzen jatorriaz geure iritziak -maiz kategorikoak- ematera.

Baina etimologia zientzia bat da, eta ez nolana hiko gainera. Lan horretarako hizkuntz oinarri sendoa izan behar da eta datu ugarirekin jokatu; hala izanik ere, hanka sartzeko arriskua hortxe dago beti. Beraz, etimologi lana ez da edozeinek egiteko modukoa.

Duela gutxi, ezagun erdaldun batek galdetu zidan Gasteizen ea zer esan nahi zuen *Zurrupitieta* toponimoak. Askok uste dute euskara jakitea (gainera ezagun horrek ez bait daki toponimi kontuetan nabilenik ere) nahikoa dela honelako galdera bati erantzun zuzen eta berehalakoa emateko. Nire erantzuna entzun baino lehen erantsi zuen beste euskaldun tolosar batek esan ziola "lugar de truenos" zela izen horren itzulpena, "me parece que ese se ha quedado conmigo" gaineratzen zuelarik. Nik, uste izango duzue, ezin izan nion zalantza argitu. Gerora konprobatu dut G. Lopez de Guereñuk bere *Toponimia Alavesa* lanean jasotzen duela izen horren aldaki bat: *Zurrupitieta*. Jakingurak ikuterik, Azkueren hiztegiara jo dut eta hara: **Zurrupita** (BN-ald) = gran lluvia. Agian ez zebilen oso desbideratua tolosarra, baina auskalo...

Leku-izen asko euskaraz dakien edonorentzat oso argiak dira esangura aldetik:

*Abadesolo* (abade + solo)

*Abarrategi* (abar + tegi)

*Artazu* (arte + zu)

*Atxondo* (atx + ondo)

Baina beste asko eta asko ez dira hain argiak, bai hitz arkaikoren bat

dutelako bai denboraren poderioz itxuraldatu egin direlako:

*Bakue*  
*Bitao*  
*Eskoldai*  
*Mojategi*  
*Amuxki*  
*Urrupain...*

Har dezagun denontzat hain ezaguna den *Zaldibar* leku-izena. Galdetzen badizuet horren etimologiaz, ziurrenik denok esango duzue ez dagoela dudarik: **zaldi + ibar**. Luis Mari Mujikak ere animalia hori ("kaballue") ikusten du Arrasateko toponimoen sailketa egitean. XVI. mendera bagoaz, Esteban de Garibay Arrasateko seme ospetsuak ere hala uste du:

"(...) el prado, llamado *Çalguibar* (...) llamada primero *Çaldiybar*, q̄ en legua de la mesma tierra significa paramo, o valle de cavallos donde muchos bādoleros y malhechores se recogian..."

Nik ere ez dut gogor egingo iritzi horren aurka, baina neure zalantzak ditudala aitortu nahi nuke behintzat. Izan ere, Guerrak *Zaldibar* 1457an aurkitzen badu ere, *Zalgibar*-en aipamen zaharragoak fitxatu ahal izan ditugu ("casa de *Çalguibarr*", "juridiçion de *Çalguibarr*", 1411an). Orduan, batetik ala bestetik abiatuz, ondorio desberdinak atera ditzakegu. *Zalgibar* hartuko bagenu aintzakotzat, hor **zalga, zalge** "veza, cierta hierba dañosa" edo **zalg**i "cizaña, mala hierba" hitzetan haren jatorria ikustea ez litzateke beharbada astakeria izango.

Eta bukatzeko beste adibide bat. Lehenago *Garagartza*-koa eta orain *Gesalibar*-koa den baserri bat badago 600 baino gehiago urtetan izen zaharra gorde duena, bertakoek *Enusketa* ebaki eta nik *Erenuzketa* forman normalizatu dudana.

Mitxelena, bere *Apellidos Vascos* liburuan, *Eremuzketa* deitura hartzen du kontutan, Juan Carlos Guerraren *Ensayo de un Padrón Histórico de Guipúzcoa*-tik aldatua, uste dudanez. Horrela, etimologia **eremu**, \***ermu** hitzetan oinarritzen du, "desierto, yermo", "término o jurisdicción", "superficie, espacio" esanahiak aipatuz, eta adibide hauek emanez: "*Hermua*, *Eremuzaueta* (en 1415) tiene una var. *Erenusqueta*: v. **ereñotz**". Eta nere ustez azken berba honetan dago giltza. Aldakia ez da *Erenusqueta*, *Eremuzqueta* baino. Eta azken hau aldakia baino gehiago errakuntza dela esango nuke. Mitxelena, **ereñotz** ("laurel") hitzean *Ereñozaga* eta *Ereñozu* etsenpluak ematen ditu, eta *Erenusqueta*, galdera-ikurrarekin. Eta lasai asko eman zezakeelakoan nago. Egia da Arrasaten "laurel" esateko **eleuntz** berba erabiltzen dela gaur egun. Egia da ere 600 urte (eta gehiago) urte asko direla eta denborarekin hizkuntza aldatu egiten dela. Eta ez da gezurra honako hau: *Erenusketa*-ko buru den 86 urteko Rafael Unamuno gizon jatorrak esan izan didana inoiz, alegia, baserri inguruan lehenago **eleuntz** asko zegoela.

### **Ondorioak**

- 1) Edozein toponimi bilketak dedikazio handia eskatzen du eta ez zaio inoiz amaierarik ikusten.

- |  |   |
|--|---|
| <p>2) Dagokigun kasuan, oraindik dokumentu ugari dago aztertu gabe eta ahozko bilketan ere sakondu beharko litzateke gehiago.</p> <p>3) Hiri barruko toponimoen bilketa sistematikoa egiteke dago.</p> <p>4) DEIKER-en ahozko toponimoen normalizazio-proposamenaren</p> | <p>eta mapa kartografiatuen argitarapenaren zain gaude.</p> <p>Eta konklusio gisa azpimarratu nahi nuke guztion lana dela gure hizkuntzaren altxor eta ondare aberatsa den toponimia zaintzea eta zuzen erabiltzea.</p> |
|--|---|

## Bibliografia

- CIERBIDE, R., "Onomasticon Vasconiae: Consideraciones metodológicas", *FLV*, 45, 1985, 175-182 or.
- FRAGO GARCIA, J. A., "Problemas, métodos y enseñanzas de la toponimia", *Actas de las I Jornadas de Onomástica. Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 199-220 or.
- HUDON, H., *Méthodologie des inventaires toponymiques (Dossiers toponymiques, 16)*, Gouvernement du Québec, 1986.
- JIMENO JURIO, J. M., "Recogida de toponimia. Ambito, fuentes, metodología. La experiencia navarra", *Actas de las I Jornadas de Onomástica. Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 99-110 or.
- MICHELENA, L., *Apellidos vascos*, Edit. Txertoa, San Sebastián, 1989 (4. argitaraldia)
- MUJIKA, L. M., *Euskal toponimiazko materialeak. Arrasate, Elgeta, Eskoriatza*, XVII. alea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1989.
- SAN MARTIN, J., "Introducción a la toponimia guipuzcoana. Gipuzkoar toponomastikarako sarrera", *Actas de las I Jornadas de Onomástica. Toponimia. I Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia (Gasteiz, 1986)*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 249-277 or.
- VINSON, J., "Importance des noms topographiques, lieux-dits, etc., pour l'étude de la langue basque", *RIEV*, III, 1909, 349-356 or.
- \* Atikuluan ematen diren leku-izenak *Arrasateko toponimia* lan argitaragabetik hartuak dira.